



ALTZOKO UDALA

ALTZOKO UDALEKU IREKIAK 2026 BEGIRALEAK HAUTATZEKO DEIALDIA

2026ko ekainaren 22tik uztailearen 23ra udaleku irekiak antolatu ditu Altzoko Udalak 2014 eta 2023 urte bitartean jaiotako haurrentzat. Honela, udaleku hauetan begirale gisa aritzeko deialdia luzatzen dizuegu.

Begiraleen kontratazioa ekainaren 17tik uztailearen 23ra bitartekoa izango da. Begiraleak hautatzeko garaian, hautagaiek bete behar dituzten **ezinbesteko baldintzak** honako hauek izango dira:

- 1) 18 urtetik gorakoak izatea.
- 2) Euskara ulertu eta ongi hitz egitea

Bestalde, aukeratzeko baloratuko da:

- 1) Zuzendari titulua izatea (6 puntu)
- 2) Begirale titulua izatea (5 puntu)
- 3) Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak izatea: magisteritza, pedagogia, psikologia, gizarte hezkuntza edo haur hezkuntzako goi teknikaria (3 puntu)
- 4) Hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak burutzen aritza (goian aipatutakoak) (2 puntu)
- 5) Prestakuntza ikastaroak: jolasa, aisialdia, genero berdintasuna umeen aisialdian eta abarrekin erlazionaturiko prestakuntza ikastaroak: 10 orduko ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu
- 6) 3. HE / EGA / baliokidea izatea: 5 puntu
- 7) Lan esperientzia, udaleku itxi edo irekietan hamabostaldi bakoitza 0,5 puntu (5 puntu gehienez). Bizitza laborala aurkeztu beharko da.
- 8) Altzotarra izatea (5 puntu)

Aukeratuaren artean berdinketarik egongo balitz, zozketa bidez erabakiko da.

Aukeratuak izan diren hautagaiek, adingabekoekin lan egiteko aurrekari penalen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, besteak beste.

Beraz, interesa duenak kurrikulum-a, Nortasun Agiriaren kopia, osasun txartelaren kopia eta tituluak eta informazioa egiaztatzeko dokumentazioa ekarri beharko du udaletxera, maiatzaren 15erako. Ez da onartuko epez kanpoko izen-ematerik.

Informazio gehiago 943652413 telefonoan edo kultura@altzo.eus helbide elektronikoan.

OHARRA: begirale gisa praktikak egin ahal izateko, eskaera egin beharko da maiatzaren 15erako. Bakarra hartuko da eta altzotarrek lehentasuna izango dute.

Altzon, 2026ko apirilaren 29an
Alkateak: Xabier Olano Jauregi

